

KONTROL MOZIOA

Hiriko zuhaitzen kimatzea dela-eta

Itziar Iturri Arrazola EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko azaroaren 13an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostian 25 parke eta lorategi eder ditugu. Parke eta lorategi horiez gain, hirian zehar hainbat “baso txiki” ditugu (adibidez, Bera Berako Hegaztien pasealekuan dagoena edo Añorga Txikiko ipar aldean dagoena). Eta baso txiki horiez gain, badaude hirian ez parke, ez lorategi, ezta “baso txiki” ere esan ezin zaien gunek; gune berde txikiak, non zuhaitzak dauden.

Parke eta lorategietatik kanpo dauden zuhaitz horietako asko beren kabuz sortu eta garatu dira, inongo zainketarik eta kontrolik gabe. Batzuek 30 urtetik gora dituzte eta badaude 35 metrotik gora ere neurtzen dutenak. Etxebizitzetatik eta haurren jolastokietatik gertu daude eta egunen batean istripu larria gerta daiteke kontrol ezak jarraitzen badu.

Bestalde, egunero jasotzen dira herritarren kexak zuhaitzak eta zuhaixkak ez inauteari buruz, etxebizitzetako leihoetara iristen diren adarrei buruz, zuhaixkek inbaditutako bidegorriei buruz, zuhaitzek inguratu dituztelako argitzen ez duten farolei buruz...

Udal Gobernuak Zuhaitzen Plan Zuzentzailea garatzen ari da, baina udaberrira arte ez da gauzatuta egongo. Eta inausketa lana, ordea, udaberria baino lehen egin beharra dago.

Artean, kasu batzuetan, auzo elkarteak berak ari dira espaloiak eta bide gorriak garbitzen, udal teknikariek markatutako zuhaitz batzuk erori dira jada, azken haizeteen kasuan zuhaitz batzuk zartatu eta adar ugari erori dira...

Batzordean, Udal Gobernuak ez zuen konpromiso garbirik agertu arazo horiek konpontzeko berehalako neurriak hartzeko.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, inausketa denboraldia hastera doanez, parke eta lorategiez haratago dauden zuhaitzak eta zuhaixkak egoki mantentze aldera, eskura dituen baliabideak inausketa lanetara bideratzeko (edo behar izan ezkeru kaltetutako zuhaitzak kentzeko), Donostiako guner berdeak behar den bezala mantentzeko eta arriskuak saihesteko helburuz.

Donostian, 2023ko azaroaren 16an

Itziar Iturri Arrazola
EH BILDU udal taldeko zinegotzia